

Funtsezko jarduerak

Ikiguren funtsezko jarduerak hurrengoak izango dira:

WEBGUNEAREN DISEINUA: Webgune bat diseinatu behar izango dugu eta bertan hurrengo zabor bilketak adieraziko ditugu. Horretarako gustatuko litzaiguke hainbat atal izatea. Alde batetik, gure ustez garrantzitsua da argi eta garbi adieraztea gure hurrengo bilketak, eta horretarako webgunean sartu bezain pronto agertuko da noiz eta non izango den hurrengo. Beste aldetik, uste dugu beharrezkoa dela gure enpresa zabaltzea eta jendeak jakin dezan nortzuk garen, eta horretarako uste dugu atal bat egon behar dela gure lana zein den azaltzeko eta gure helburua argi uzteko.

EKINTZEN DISEINUA: Jendea ekintzetara behar barik etorriko direla suposatuz, hau da, haiek nahi dutelako, hasierako ordu bat jarriko dugu, eta amaierakorik ez, holan, ahal dugun denbora gehiena pasatuko dugu zaborra biltzen. Zabor bilketetan area bat mugatuko dugu eta materialen eta zaborren puntu bat egongo da. Ikigu-ko bakoitza leku batean egongo da, bat materiala batzen eta ematen, bestea zaborra antolatzen non bota, poltsak zenbatzen... eta beste biak laguntza eskeintzen. Horrez gain gure bazkideen kartelak ipiniko ditugu marketina egiteko.

BOLONDRESAK LORTZEKO: Gure ustez jarduera honetan oinarritu behar gara batez ere. Hau lortzeko kartelak inprimatuko ditugu eta herrietan edo ekintza egingo den lekuaren inguruan jarri, gainera sare sozialetan oso aktibo egongo gara eta horrez gain irati zein komunikabidetako kanaletan agertzen saiatuko gara bolondresak lortzeko.

BEZEROAK LORTZEKO: Hau lortzeko udaletara joango gara fisikoki posiblea bada, eta gure eskaria eta proiektua aurkeztuko diegu. Hortik abiatuta negoziazioak hasiko dira.

MATERIALA EROSTEKO: Hasteko, materiala erosi behar dugu. Hau Eroski eta Amazon bidez egingo dugu beraz oso erreza izango da. Gainera, guk materiala pixkanaka-pixkanaka aldatuko dugu kostu aldakorrak izan ezik, baina finkoak zerbait apurtzean berretsiko ditugu.

ARTISTAK: Hasteko bilaketa bat egingo dugu internet zein sare sozialetan eta ostean artista lokalak hautatzean haiekin kontaktuan ipiniko gara.

KOMUNIKATZEKO: Oso aktiboak izango gara sare sozialetan Instagramen oinarriturik. Gure helburua hurrengo bilketak modu argian azaltzea da, eta hortaz, gure emaitzak bertan adieraziko ditugu.